

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

DONEMILIAGAKO UDALA

2019. urtean Donemiliagako udalerrian kontzejuek egiten dituzten jaiak eta gizarte eta kultura jarduerak antolatu eta egiteko gastuak finantzatzeko udal laguntzen deialdia jasotzen duen 2019ko martxoaren 12ko erabakiaren laburpena

BDNS (identifikatzailea): 450235

Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritz, argitara ematen da deialdiaren laburpena. Haren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalen dago ikusgai: <http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/es/index>.

Deialdiaren xedea

2019. urtean Donemiliagako udalerriko herrietan egiten diren jaiak eta gizarte eta kultura jarduerak antolatu eta egiteak eragindako gastuak finantzatzea.

“Honako hauek jaso dezakete dirulaguntza: Donemiliagako udalerriko herrietan jai egitarauaren barruan egiten diren jarduerak; izaera herrikoa duten eta, oro har, herritar guztientzako diren kultura, jolas, jai eta kirol ekitaldiek; garaikurren erosketek (txapelak, kopak, urdaiazpikoak, gaztak...); eta jardueren berri zabaltzeko karteak.”

Diruz lagunduko dira, halaber, agertokiak alokatzeak eragindako gastuak, programatutako jarduerak egiteko halakoa beharrezkoa dela egiaztatzen duten herrietan eta herriok hala eskatu ondoren.

Salbuetsita geratzen dira otorduen, lunchen eta antzekoen gastuak, bai eta elikagaien gastuak ere, hala nola gozoki, edari eta bestelakoak.

Onuradunak

Donemiliagako udalerriko kontzejuek eta batzorde antolatzaileek eskatu ahal izango dute dirulaguntza.

Kontzejuaren oniritzia izan beharko dute 2019an zehar kultura ekintzak eta ospakizunak antolatzen dituzten batzorde antolatzaileek.

Oinarri arauak

Donemiliagako Udalbatzak 2019ko martxoaren 12ko bilkuran onetsiak.

Laguntzaren zenbatekoa

Deialdi honen zuzkidura 22.500 euro da (334.434.000 eta 338.434.000 aplikazioak).

Kontzeju bakoitzak, gehienez ere, 1.266,00 euroko dirulaguntza jasoko du, eskatutako jarduera kopurua eta eskatzaile kopurua zein diren gorabehera, eta udalaren aurrekontu aplikazioaren muga (18.000 euro) kontuan hartuta.

Agertokiak alokatzeko, kontzeju guztien artean ere, gehienez, 4.500,00 euro emango dira dirulaguntzetan. Kontzeju bakoitzari dagokiona aurkeztutako eta onartutako eskaeren arabera izango da.

Behin eskaerak ebatzi ondoren krediturik erabilgarri badago, kontzejuei eman ahal izango zaie jaietako jardueretarako orkestrak kontratatzeak gastuak ordaintzeko, betiere kontratazioaren zenbatekoa 2.000,00 eurotik gorakoa bada. Gehieneko zenbatekoa, aurrekontu aplikazioan

dagoen kreditu erabilgarria kontuan izanik, 1.234,00 euro izango da. Hasierako gehieneko dirulaguntzak, guztira, ezingo du 1.266,00 euro baino gehiago egin eta horrela ez gairitu 2.500,00 euroak.

Eskaerak aurkezteko epea

Herri guztiek eskaerak aurkezteko duten epea 2019ko abenduaren 13an bukatuko da.

Salbuespen gisa, 2019ko abenduaren 14tik 31ra bitartean gastuak egiten badira, egiaztagiriak aurkezteko epea 2020ko urtarrilaren 10era arte luzatuko da. Halakoetan, abenduaren 13a baino lehen, Donemiliagako udaletxean aurkeztu beharko da kasuan kasuko eskaera, gastu xedapena ezagutze aldera.

Erdoña, 2019ko apirilaren 15a

Alkatea

DAVID LÓPEZ DE ARBINA RUIZ DE EGINO